



## JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

**ZIURTATZEN DUT:** Barrundiako Udaleko Alkate Ordeak 2020ko abenduaren 21ean, 655 Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

**IKUSIRIK:** 2020ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroldatutako herritarrei musika ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: adinez txikiak izatea eta ondoren zehaztuko diren ikasketak garatzea: 1. mailako irakasgaiak, musika – hizkuntza, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu – taldea edo comboa, ahots-taldea eta irakaskuntza indartua edozein "Udal Musika Eskolatan".

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2019-2020 dagokionari da.

Oinarri horiek 2020ko apirilaren 03ko (39. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

**KONTUAN HARTUZ:** Deialdia arautzen duten oinarrietako 4.2ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2020ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

**GERTUA IZANIK:** Eva Gonzalez de Matauco López andreak, epean eta era egokian, honako hauei dagokien beka eskariak aurkeztu ditu:

Izena eta abizenak	Ikasketak
<i>Ane González de Matauco Medina</i>	Lenguaia musikala 2 Trikitrixa Multzo trikitrixa
<i>Uxue González de Matauco Medina</i>	Lenguaia musikala 2 Klarineta
<i>Irati González de Matauco Medina</i>	Lenguaia musikala 2 Trikitrixa Multzo trikitrixa

**IKUSIRIK:** Udaleko Kultura Teknikariak 2020ko azaroaren 12an luzatutako txostena.

**KONTUAN HARTUZ:** Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 320.480.001 partidan aurrekontu-zuzkidura dago.

### ZERA ERABAKITZEN DUT

**LEHENENGOA.-** Ane González de Matauco Medina, Uxue González de Matauco Medina eta Irati González de Matauco Medina-ren ordezkaritzan Eva Gonzalez de Matauco López andreari, 2019-2020



ikasturtean musika ikasketak garatzeagatik beka luzatzea. Beka horien zenbatekoa 1.578,71 €takoa da.

BIGARRENA.- Beka berehala ordaintzea 320.480.001 partidaren pentzutan.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau interesdunari eta udaleko Kultura Teknikariari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko abenduaren 21ean.

